

# Aretxagazeta

**ETA GAINERA...**

**Ze barri?**

ASTEKO GAIA


**Ferixa**  
arrakastatsua /08

KIROLA

**Txikirri-Txikirri**  
IV. mendi ibilaldia /09

LEINTZ GATZAGA

**Herritarrak**  
Zarautzen /10



**IRMA ARABAOLAZA**

# Munduari bira zazpi hilabetean





**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 14**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99  
**DOMEKA, 15**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxio ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIAK**

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatutan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: GOROETA**  
Domekan honetan ez dago mezarik.  
**MENDIOLA**  
Domekan honetan ez dago mezarik.  
**GELLAO/GALARTZA/IZURIETA**  
Hilabete honetan ez dago mezarik.

**OHARRAK**

**UDALAREN OSAKETA**  
Bihar, zapatua, egingo den ezohiko osoko bilkuran Udala osatuko dute.

**KURTZEBARRI ESKOLAKO JAIA**  
Bihar, zapatua, Kurtzebarri Eskolako jaia egingo dute.

**ON BITORIANORI OMENALDIA**  
Bitoriano Aranburu abadeak apaizgoaren urrezko ezteiak egingo ditu. Hori dela eta, omenaldia egingo diote herritarrek domekan: 12:00etan, meza parrokiari; eta mezaren ostean, bazkaria Taberna Barrin.

**TXOTXONGILO EMANALDIA LIBURUTEGIAN**  
*Behi bi-s* taldeak txotxongilo emanaldia eskainiko du eguaztenean, hilak 18, 18:00etan liburutegian.

**KURTZEBARRIKO KARTEL LEHIAKETA**  
Kurtzebarriko 75. urteurrena ospatzeko Kartel Lehiaketa antolatu du Murruxio.

**ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA**  
Andramaixak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak.

**ANDRAMAIXETAKO ESALDI LEHIAKETA**  
Esaldien lehiaketa antolatu dute Kultura eta Prebentzio sailek.

**LORAMENDIRENAGENDA**


**IPUIN KONTALARIA**  
Algara ludotekak antolatu-ta Joseba Ramirez ipuin kontalariak jardungo du eguenean, hilaren 19an, 17:00etan, udaletxe zaharreko bigarren solairuan. Ludotekako ume eta gaztetxo guztiak har dezakete parte.

**'EGUNKARIA'-KO AKZIOAK**  
*Egunkaria*-ren alde atera dituzten akzioak Loramendi EEn daude salgai.

**ORAINDELA 55 URTE ARETXABALETAN**

**Debarroko Pilota Txapelketa Aretxabaletan**

Debarroko Pilota Txapelketa 1948an jokatu zuten lehenengo aldiz Aretxabaletan. Arrasatearrak irabazi zuten nagusien mailako txapelketa: Garitanok eta Uribarrenek, hain zuzen ere. Argazkian agertzen diren Elorondo eta Ezpeleta aretxabaletarrak bigarren geratu ziren.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Mantxua"*

Besobakarra, besamotza.  
—*Mantxua zan san Antonioko gasolinerua.*



GORKA ORTEGA

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**Liburu berrien zerrenda**

- HELDUEN LITERATURA**
- 'Hobe nuen etxean gelditu'/ Horace McCoy
  - 'Iruzurgilea'/ James M. Cain
  - 'Ohe bat ozeanoaren erdian'/ Mikel Hernández Abaitua
  - 'Bi bihotz, hilobi bat'/ Ramon Saizarbitoria
  - 'Euskal Intelligentsiaren ideologia zantzuak'/ Joxe Manuel Odriozola
  - 'Agur, Darwin'/ Jon Alonso
  - 'Errua eta maitasuna'/ Markos Zapiain
  - 'El dueño de la herida'/ Antonio Gala
  - 'El sabotaje amoroso'/ Amélie Nothomb
  - 'Presa'/ Michael Crichton
  - 'Rebelión contra la Guipuzcoana'/ Arantzazu Amezaga Iribarren
  - 'La última legión'/ Valerio Massimo Manfredi
  - 'La loca de la casa'/ Rosa Montero
  - 'La vida invisible'/ Juan Manuel de Prada

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

**ZORIONAGURRAK**



ARETXABAETA  
**Jurgi Zuazua**  
6an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Jago eta Asier.



ARRASATE  
**Eneko Elizaran**  
11n, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



LEINTZ GATZAGA  
**Julen Galarza**  
13an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA  
**Maialen Elorza**  
14an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA  
**Eñaut Rostropov**  
15ean, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako, zuk dakizunen partetik.



ESKORIATZA  
**Iker Fernández**  
18an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

**Zorionak!**  
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

BABESLEA

**FOTOSINTESIS**

argazkilaritza

**Errebelatu guztiak 24 ordutan**  
Kamerak • Kernetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak  
Herriko plaza 5 ARETXABAETA 943 79 79 67

Zure jai egitarauak, kartelak, pegatinak, etab...

**EGUZKIGRAF**

inprimategian

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941  
info@eguzkigraf.com  
20550 ARETXABAETA

Jon Diaz

Harakina

Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAETA

Lie

LURRINDEGIA  
OPARI DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABAETA



## ATREBENTZIAEZPADA/ Realak ligie irebaziko dauela uste dozu? Hala balitz zela ospatuko zeuke?



**MARIA REY**  
Langillie

Bai, irebaziko dauela uste dot. Egixe esan futbola ez jat askorik interesetan. Irebazten badaue ez dakit zelebrauko doten. Oin, ligako porrie tokau ezkeru, orduen bai, orduen zelebrauko dot.



**DIONI MATEO**  
Langillie

Ez dakit irabaziko dauen edo ez, baiñe gureko neuke aurten Reala txapeldun izetie. Seme txikixenak 6 urte dauko, eta Realeko jarraitzaillie danez, harekin zelebrauko neuke.



**UNAI HIRUZUBIETA**  
Iksalke

Bai, seguru. Sarrerie lortu ezkeru, azkenengo partidue ikustera fateko asmue dauket, Anoetara. Hortan, Donostian zelebrauko dot juerga haundi bat egiñez Realaren garaipena.



**SALVA RODRIGUEZ**  
Langillie

Bai, ba. Txanpan botillie sãrtute dauket freskaketan. Azken partidue ikustera, gaiñera, Donostiara fateko asmue dauket. Galdu ezkeru be, bigarren postue zelebrakue izengo da.



**JOKIN ANTIXIA**  
Langillie

Bai, ez dauket iñungo dudarik aurten txapeldun izengodala. Zelebraziñotan ondionkan ez dot pentsau be egin. Lehenengo irebazi daixela ligie, eta gero egingo dogu ospakizune.



**BEATRIZ ETXABE**  
Langillie

Bai, irebaziko dau. Ligie irabazi eta txapeldun geratu ezkeru, pozik egongo naz, baiñe ez dot uste iñungo ospakizunik egingo dotenik. Hala eta be, aurten gehixago segidu dot ligie.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK ZUHAITZAK OINEZKOEN BIDEAN** Urkulurako oinezkoendako bidean jende ugari ibiltzen da. Udalak, gainera, bidea egin zuenetik itxura hobea izan dezan ahaleginak egin ditu. Oraintsu, esaterako, bidearen alboetan zuhaitzak landatu ditu. Oraindik meheak eta txikiak dira, baina ziur hemendik urte batzuetara gerizpe ederra eskainiko dietela Urkulurako ibilbidea egiten duten guztiei. /A.L.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Bidegorriko txabolak

Industrialde gainaldean dauden ortuak eta txabolak errekarantz datoz lurrak mugitu egin direlako.

ASTEAN BEHIN /05

#### Irma munduan zehar bidaiari

Hegazkin txartela erosi, eta zazpi hilabete pasatu ditu Irma Arabazolazak munduari bira ematen.

KIROLAK /06

#### Igeriketan txapeldunak

Aratz elkarteko hiru lagunek Donostian egindako igeriketa proban dominak irabazi dituzte.

### ASTEKODATUA

# 8.000

#### EURO BATU BEHAR DITUZTE EGUNKARI BERRIRAKO

Egunkaria-ko langileek egunkari berria ateratzeko 8.000 euro batu behar dituzte Aretxabaletan. Dagoeneko 6.000 euro batu dituzte Aretxabaletako batzordekideek, akzioak salduta.

### BESTEKEKESANA

**“ Errekortadore baten lana da zezenari deitu eta gero, burla eginez, engainatzea eta ospa egitea.**

**Zezenak ez gaitzan harrapatu ahaleginak egiten ditugu.**


**Errekortadore txapelketan bikoteka ibiltzen gara eta zezenari nork zirrindola gehiago jarri izaten da lehian.**

**Bergarako errekkortadore txapelketan Hodei Lazpita nuen bikotekide. Hodei zezenak harrapatu zuen eta orain ospitalean dago. Nahiko egoera onean dago, eta dagoeneko desiratzen dago handik irteteko. Zezenak hankatik sartu zion adarra eta zauria egin zion, baina, nik uste dut azkar sendatuko dela.**

**Hodei eta biok txikitatik gabiltza zezenaren aurrean.**

**EGOITZ GARCIAETXABE**  
Arrasate Irratia/03-06-10

### HERRITARRENBERBAK/ Fernando Berrizbeitia



#### Everest Glam

**E**gun hauetan Tenzing Norkay sherpa nepaldarra eta berarekin zihuan Edmund Hillary Zelanda Berriarra Everestera iritsi zireneko 50 urte bete dira. Hori dela eta hainbat informazio, dokumental, e.a. eskaini digute komunikabideetan. Gainera, aurreko astean helikoptero bat jausi zen beheko kanpamenduan, istripuan bi pertsona hil zirelarik.

Kontua da, istripu hori gertatu zenean 800 bat pertsona omen zeudela beheko kanpamendu horretan. Hala entzun nuen behintzat albistegi batean. Ez dakit hainbeste izango ziren, baina, dirudienez, ez da giro Everest inguru horretan.

Munduko mendirik altuenera igotzeko grina ez da, garai batean bezala, ezezagunaren xarma, misterioaren erakarpena edo abentura egarriaren ondorioa. Everestera joatea, askorentzat, beraien jabetzen artean beste jabetza bat edukitzea da: etxea, autoa, dirua eta Everest.

Guzti hori “daukat”, besteak beste. Batzuk Portaventurara joaten diren moduan, beste batzuek, agian adrenalina falta eta dirua soberan dutelako, Everesteko txartela erosten dute. Eta ondorioz, mendia ingurune turistiko bihurtzen da.

Martin Zabaleta Everestera iritsi zenean (haiek garaia, eh?) euskaldun guztiek amets bat beteta ikusi genuen, eta, bakoitza bere neurrian, lorpen horretako parte hartzaile sentitu ginen. Gauza bera gertatu zen gure herrian Felixek eta Albertok gainera zapaldu zutenean. Baina, orain, ikusten dugu “Mendi Sakratua” “katxas” dagoen edozein “pijo”-ren esku dagoela. Horrela jarraitzen badugu, laster ikusiko dugu Everest Glam edo Everest-etxe, edo, zergatik ez, herrialde garatuetoako liderren goi (eta sekula baino gorago) bileraren kokagune bihurtuta: Imajinatzen al duzue gora iritsi eta Bush, Blair, Pepe, ea. bertan topatzea? Joatekoa nintzen baina jadanik ez noa!!!

**“Munduko mendirik altuenera igotzeko grina ez da, garai batean bezala, abentura egarriaren ondorioa”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala





M. J. Aretxaga

## Langille fiñek

Egualdi berue. Horixe ekarri dosku ekaiñeko bigarren astiek. Igerten da udie gertu daukogule, hortaz, baitte San Juan bezperie be. Oingo, Bergarako Pentekoste jaixekin konformau biher. Jai horreit-tan ibilitteko aretxabale-tar bat ospitalien dauogu. Ez, ez eizue txarto pentsatu... lanien ebillen-eta. **Hodei Lazpita** da bera, eta Bergarako errekortheadorien txapelketan hartu euen parte **Egoitz Garciaetxabekin** batera. Ikuskizun politte eskaitzen ebizten, baiñe halako batiñ izterretik adarra sartu eutzen zezenak. Larrixaue izen eikien, zanen bat harra-pau ezkeru; ospitalien egun batzuk egin arren ondo dau. Berai emun eutzien, gaiñera, errekor-te artistikuenan sarixe.

Beste aretxabaletar langille bat be aipatu gureko nauke. **Itxaso Uribetxebarria** Eudorrera joango da udan hiru hillebete pasetan. Oporretan? Ez horixe, lan talde batekin doie bertakue lagunketako asmuekin.

Aste bukaeran herri-ko kirolari batzuk lanien ibilliko die fin-fin. **Errasti anaiek** Debarroko pilota txapelketako finala jokatuko daue mondrauetarren kontra, eta **Arlutz xake taldie** Bergarako xake bixkorreko txapelketan egongo da. **Uriarte anai-arrebak**, ostera, trialsin txapelketan.

M. J. Aretxaga

**INGURUMENA/** Euria egiten duenean ur asko irteten da, eta lurak eta txabolak errekarantz doaz poliki-poliki

# Industrialde gainaldean egin dituzten txabolak eta ortuak errekarantz jausteko arriskuan daude

MIRARI ALTUBE

Aretxabaleako Industrialdeak ortuak eta txabolak eraiki zituen Industrialde gainaldean. Abenduan eman zizkieten jabeei, baina dagoeneko arazoak dituzte. Lur azpitik ur asko irteten da, eta ur horrek lurak -eta txabolak eurekin- errekarantz daramatza.

Haserre daude Industrialdearen goiko aldean dauden ortuen eta txabolen jabeak. Abenduan hartu zituzten txaboleto giltzak, baina zerbait egiten ez bada, lur eta txabola barik gera daitezke.

### LUR AZPIKO URAK

Anjel Irurek txabola eta ortu txiki bat dauzka. Ilusio handiarekin hartu zituen biak abenduan, baina orain beldur da ez ote zaizkion errekarantz joango: "Euria egiten duenean ur asko irteten da lur azpitik. Ur horrek eraginda ortuetako lurra behera doa, errekarantz, eta laster txabolak ere joango zaizkigu; nirearen albo-koa, esaterako, airean dago. Errekako zuhaitzak eurak ere mugituta daude". Anjelen iritziz, bate-tik, lur azpitik datorren ur horri guztiorri bidea egin behar zaio eta errekarantz bideratu eta, bestetik, harrizko horma jarri



Lur azpiko uren erruz lurak beherantz doaz, eta txabolak airean geratzen hasi dira.

beharko lukete lurrei eusteko.

### INDUSTRIALDEAREN ARDURA

Behin baino gehiagotan eman diote txabolen jabeek arazoaren berri

Aretxabaleako Industrialdeari. Azken haren erantzuna atzeratu egin da, tartean arduradun aldaketa izan da-eta, baina badirudi konpontzeko gertu dagoela, eta

gaur, egubakoitza, bertan izan dute batzarra. Edozelan ere, konponbidea ez da samurra izango, eta hondeatze makinak sartu beharko dituzte, seguru asko, errekan.



### Egunkari berria aurkeztu zuen Arantzazu Arroiabek

Aurreko astean *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile izan zen Arantzazu Arroiabek egunkari berria aurkeztu zien aretxabaletarrei. Ekainaren bukaera aldera kaleratuko dute, eta aurrekoaren oinarria, ildo editoriala eta langileak izango ditu. Horretarako, baina, bost milioi euro batu behar dituzte. Akzioak salgai daude Loramendi EEn. /M.A.

**Lubia**  
oinetakoak



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**ANA'S**  
jantzi denda

**Iparragirre 4.**  
Aretxabaleta

**SANER**

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70



**IRMA ARABAOLAZA/MUNDUARI BIRA EMAN DION ARETXABALETARRA**

## “Motxila bizkarrean, eta moldatu egin behar; baina inon ez dut arazorik izan”

MIRARI ALTUBE

Urrian irten zen Dublindik eta aurtengo maiatzean ailegatu zen Aretxabaletara. Zazpi hilabete pasatu ditu kanpoan, eta Afrikatik izan ezik, gainerako kontinente guztietatik pasatu da. Argazki asko eta kontu gehiago ekarri ditu bueltan.

**Zein ibilbide egin duzu?**

Munduan zehar ibiltzeko hegazkin txartel berezia erosi genuen Asturiasko lagun batek eta biok. Txartelak urtebete balio dauka, eta sei geldiuine egin daitezke. Hortik aurrerakoak norberak antolatu behar ditu, eta guk Thailandia, Kanbodia, Australia, Zeelanda Berria, AEBak eta Kanada aukeratu genituen.

**Zelan bururatu zitzaizun bidaia hori egitea?**

Azken bi urteak Irlandan egin ditut, eta han askok egiten dute bidaia hori. Gainera, Australiak eta Zeelanda Berriko lagunak egin nituen, eta euren herrialdeak ezagutzera joateko animatu ninduten.

**Herri asko ikusi dituzu. Zein duzu gustukoen?**

Ez da samurra bat aukeratzera, herrialde guztiek dute zerbaite. Tarte luzeenak Australian eta Zeelanda Berrian pasatu nituen, bi hilabete gora bietan; hortaz, bertako oroimenak gehiago dira. Biak ere ikusgarriak dira paisaiari eta faunari dagokienez, eta hamaika ekintza egin nituen: belaontzian nabigatu, arbeletzekoak batu, urre bila jardun... Dublinen ezagututako lagun asko nituen bi herrialde horietan, eta euren eskutik beste era batera ezagutu ditut herriok.

**Hegazkineko txartela bai, baina handik aurrerakoak?**

Motxila bizkarrean hartu eta moldatu egin behar: lo egiteko tokiak bilatu, nora joan erabaki... Edozelan ere, inon ez dugu arazorik izan. Sinetsi ere ezingo zenukete egin motxila bizkarrean hartuta zenbat jende dabilen munduan, eta batek ikusitakoak beste bati kontatu, eta ahoz aho informazio asko jasotzen genuen.

**Ezustekorik izan duzu?**



IRMA ARABAOLAZA

*“Sinetsi ere ezingo zenukete egin motxila bizkarrean hartuta zenbat jende dabilen munduan”*

Ez, hiru argazki-kamera galdu genituen, baina geure hutsegiteen erruz. Argazkiak ez ditut galdu, eta hori da garrantzitsuena.

**Kontatzeko moduko anekdota ugari izango dituzu, ez?**

Bai, eta xelebrekeriak ere asko, gehienak hemen egingo ez nituzkeenak. Bat aipatzekotan: Zeelanda Berrian 4.000 metrora zegoen hegazkin batetik bota nintzen beste bati lotuta; minutu baten jausi libre deritzona egin nuen eta gero jausgailuarekin lur hartu.

*“Zeelanda Berrian 4.000 metrora zegoen hegazkin batetik bota nintzen beste bati lotuta”*

**Kanadan ez zenuen arazorik izan pneumonia dela-eta?**

Ez. Zalantzan egon ginen Torontora joan edo ez, baina han, ospitaleetan edo txinatarrak bizi diren auzoetan sartu ezean, lasai ibil zitekeen.

**Gomendatuko zenuke bidaia?**

Bai, horixe. Herrialde eta jende berria ezagutzeak beste ikuspegi bat izaten laguntzen du. Gomendatuko ez nukeen leku bakarra Los Angeles hiria da.

## LABUR


### Aretxabaleta eta Eskoriatza artean antolatuko du Kilometroak 2005 Arizmendik

Urriko lehenengo domekan egiten da Gipuzkoako ikastolen aldeko jaia: Kilometroak. Aurten Lazkaon egingo dute eta datorren urtean, berriz, Zarautz eta Orío artean. Eta dagoeneko erabaki dute 2005ean non egingo duten: Aretxabaleta eta Eskoriatza artean, hain zuzen. Arizmendi Ikastolak izango du ardura eta ibilbidea honakoa izango da: Almen ikastetxetik Copreci lantegira, handik bidegorritik bueltan Arientzara, eta handik Boliñatik pasatuta Arkarazora, eta gero berriro Almenara jaitasi. Izango dute, bai, lana Arizmendiko arduradunek hemendik eta ekitaldia egin arte.

### Auzoetan meza esaten duen Jose Angel Agirre abadea Donostiara joango da irailean

Aretxabaletako auzoetan meza esaten duen abadea, Jose Angel Agirre, Donostiako Polloe auzora joango da irailean. Hori dela eta, auzoetako bizilagunak kezkatzen hasita daude abade barik geratuko ote diren. Aretxabaletako parrokiako kideek, ostera, norbait bidalikotzen esperantza daukate. Jose Angel etorri aurretik Bitoriano Aranburuk zuen auzoen ardura, baina herritarrek domekan egingo dioten omenaldiarekin erretiratu egingo da.


## TXUTXUMUTXUA



### Arizmendik Aretxabaletan izango du egoitza

Oraingo astean bertan sinatu du kooperatiba bakarra izateko hitzarmena Arizmendik. Bestalde, aurrera begira dituen erronken berri eman gura izan du: Arizmendiren izaera baieztatzea, ikastolen proiektua berregituratzea eta hezkuntza proiektu berria diseinatzea eta ezartzea. Horrela, ia 3.000 ikasle dituen Leintz ibarreko ikastola bakarra izango da Arizmendi, eta egoitza ofiziala Aretxabaletan izango du, Larrin plazan duen egoitzaren bigarren solairua ere erosi du-eta. /M.A.

## BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

## AMETS TABERNA

Iparagirre, 4  
Tel.: 943 79 01 29  
**ARETXABALETA**



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68





Juan Carlosek, Ikerrek eta Iñakik harro erakutsi zituzten Donostiako igeriketa proban irabazitako dominak.

## KIROL TOPAKETA

# Aratz elkarteko hiru igerilarik bost domina irabazi zituzten Donostian

Juan Carlos Barquerok, Iker Arexolaleibarrek eta Iñaki Iturbek hartu zuten parte txapelketan

### AMAGOIA LASAGABASTER

Maiatzaren 31n jokatu zen FEVAS elkarteak antolatutako igeriketa topaketa Donostian. Aretxabaletatik Aratz elkarteko hiru kirolari joan ziren txapelketan parte hartzera: Iker Arexolaleibar, Juan Carlos Barquero eta Iñaki Iturbe. Denak dominekin itzuli ziren.

Harro erakutsi dituzte Juan Carlos Barquerok, Iker Arexolaleibarrek eta Iñaki Iturbek lepotik zintzilik daramatzaten dominak. Juan Carlosek, gainera, batekin nahiko ez, eta hiru daramatza. Hiru kirolariak pozik itzuli ziren maiatzaren 31n Donostian jokatutako igeriketa probatik.

### PARTE-HARTZAILE UGARI

FEVAS elkarteak urtero antolatu dituzten urritasun fisiko eta psikikoak dituzten kirolariendako kirol topaketak. Horieta bat

igeriketa txapelketa izan ohi da. Donostian Altzako igerilekuan egiten dituzte norgehiagokak, eta aurten ere halaxe egin zuten.

Espainiako Estatuko eta Euskal Herriko igerilari ugari hartu zuten parte igeriketa topaketan. Besteak beste, Errioxako, Aragoiko, Bizkaiko eta Gipuzkoako kirolariak neurtu zituzten indarrak. Ehun lagun baino gehiago batu ziren Altzako igerilekuan.

### BOST DOMINA

Hiru aretxabaletarren artean bost domina ekarri zituzten bueltan Aretxabaletara. Juan Carlosek hiru eskuratu zituen: urrezkoa *crawl* estiloan, zilarrezkoa bizkar estiloan eta beste zilarrezko bat txandaka. Azken proba horretan Ikerren laguntzarekin hartu zuen parte, eta, jakina, hark ere zilarrezkoa irabazi zuen. Azkenik, Iñakik bere mailako errelebu proban neurtu zituen indarrak, eta

bigarren geratu zen; zilarrezko dominarekin itzuli zen etxera.

### ENTRENATZAILEA POZIK

Juan Carlosek, Iker Arexolaleibarrek eta Iñaki Iturbek Pedro Balencia aretxabaletarra dute entrenatzaile. Orain dela bost urte hasi zituzten entrenamendu saioak, eta ordutik hona Aratzeko beste bi kiderekin batera eguenero elkartzen dira kirol etxeko igerilekuan. Pedoren esanetan, batzuetan entrenamendu saio gogorrak egiten dituzte eta beste batzuetan, aldiz, erlaxazio ariketak egiten dituzte.

Hain zuzen, Pedrok begirale lanak egin zituen Donostian. Aurreneko aldia da horrelako txapelketa baten parte hartzen duela, eta esperientzia polita izan zela kontatu digu: "Giro ezin hobea egon zen igeriketa topaketan, ederto pasatu nuen. Horrez gainera, gure kirolariak txapelketa biribila egin zuten".

## KIROL ETXEA

### Udako Kirol Kanpaina parte hartzeko izenemate epea zabaldu dute kirol etxean


Kirol etxeko arduradunek Udako Kirol Kanpaina antolatu dute beste behin, eta ekainaren 30etik uztailaren 28ra iraungo du. Izenemateko epea, baina, dagoeneko zabalik dago. Aurten honako hamar kirol hauek eskainiko dituzte: mendiko bizikleta, badminton, eskalada, multikirola, aerobika, golfa, patinajea, igeriketa, tenisa eta eskubaloia.

## XAKEA

### Gipuzkoako Xake Bizkorreko Txapelketan hartuko dute parte Arlutzeko xakelariek

Bihar, zapatua, Aretxabaletako Arlutz Xake Taldeko kideek Bergaran jokatuko den Gipuzkoako Xake Bizkorreko Txapelketan hartuko dute parte. Goizean bakarkako txapelketa egingo dute Fran Migelek eta Aitor Alcaidek eta arratsaldean, berriz, taldekako norgehiagoka egingo dute, eta Franez eta Aitorrez gain, Andoni Migelek eta Esteban Romerok ere hartuko dute parte.

## FOTOKIROLA



### Oier eta Asier Debagoieneko III. Triatloian

Bero ikaragarriarekin jokatu zuten ekainaren 7an Debagoieneko III. Triatloia. Parte-hartzaile ugari batu ziren Urkuluko urtegiaren lehenengo proban, igeriketari, aurre egiteko. Tartean aretxabaletar bi zeuden: Oier Etxeberria eta Asier Barrainkua. Oierrek bere erritmoari eutsiz egin zuen proba osoa eta helmugara 48. postuan iritsi zen (2:31:24); Asierrek, berriz, 2:55:03 behar izan zuen proba amaitzeko eta 97. postuan iritsi zen helmugara. Zorionak, bie! /A.L.

## TXIMAK

- Ile apaindegi mistoa
- Estetika
- Depilazioa argizari epelarekin

Herriko plaza 5.  
ARETXABALETA.  
Tel.: 943 79 83 64



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

## Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA

Aretxagazeta



ERRETRATUZHARRA

# UDA, futbolarien harrobi

**A**retxabaletako Kirol Elkarteko (UDA) futbol taldeak beti izan dira futbolarien harrobi. Orain dela 20 urte baino gehiago Realak liga irabazi zuenean Idigoras zegoen taldean, urte batzuetan Aretxabaletan jokatzen ibili zena. Oraingoan Jose Javier Barkero daukagu, herriko semea eta UDAko infantil mailan jokatu zuena.

Erretratua 1990-1991 denboraldian ateratakoa da, 12 urte inguru zituzten mutikoen, eta ez zuten ezer lortu ez ligan ezta Kopa Txapelketan ere. Jose Javierrek UDAko taldearekin jokatu zuen azken urtea izan zen, eta Alex anaiarekin jokatu zuen bakarra; urte haren ostean Realak eroan zuen Donostiara Jose Javier.

Barkeroz gain badaude aipatu beharreko beste jokalaririk ere: batetik, Iban Astola aramaiarra. Eibarrek fitxatu zuen, eta azken denboraldia Gernikako taldearekin jokatu du bigarren B mailan; bestetik, Xabi Lasagabaster aretxabaletarra. Lau urte egin zituen Xabik Aurrera



Vitoria taldean, eta orain Zornotzako taldean dabil, hirugarren mailan.

Zutik, ezkerretik eskumara, honakoak daude: Roberto Alcalde (lehenengo entrenatzailea), Garikoitz Barbero, Xabi Lasagabaster, Jon Maskariano, Jose Javier Barkero, Jose Luis Txintxurreta (delegatua), Alex

Barkero, Josu Otxoa, Igor Aperribai, Iban Rodríguez, Agustin Berasaluze (bigarren entrenatzailea).

Makurtuta: Alberto Aldaz, Eneko Otxoa, Jokin Elortondo, Juan Antonio Cruz, Iban Astola, Iñaki González, Gorka Zubillaga.

Erretratuko mutikoen ez zuten

ezagutu Real ligako txapeldun; bada, ea oraingoan Realarekin batera ospatzeko aukera daukaten. Euren taldekide izandako Jose Javier Barkero tartean egongo da, gainera.


Argazkia: ARETXAGAZETA

**Mota guztietako gidatzeko  
baimenak ateratzeko aukera.  
LARRINGANEK.**

**Eskola teorikoko irakaslea.  
LARRINGANEK.**

**Ordutegia, zure beharretara  
egokitua.  
LARRINGANEK.**

**Gogo pixka bat.  
NORBERAK.**



Bulego ordutegia:  
10:00-13:00 eta 16:00-20:00  
Basabe Poligonoa F-0-7  
ARETXABALETA  
Telefona: 943 79 64 50



# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 13a / 128. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 • 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Gero eta lagun gehiago jasotzen ditu Arizmendik antolatzen duen Ferixiek

AINTZANE GARDOKI

“Jendea gainezka, salmenta onak, eguraldi ona eta giro ezin hobea izan ditugu aurtengo Ferixan. Pozik gaude jasotzen dugun erantzunarekin”, esan digu Arizmendi Ikastolako Rosa Elizburuk. Txorimaloak egiten 115 gaztetxo ibili ziren, eta Txepetx taldeak egin zuen txorimalo onena; herri bazkarian 400 lagun elkartu ziren; saritutako postu onenei dagokienez, Apotzaga baserriarena, Gregorio Graciarena eta Txaro Uriberena izan ziren; eta otarrak eskuertzeko zenbaki saridunak 4.913 eta 5.355 izan ziren.

ARGAZIAK: A.I.

*Txorimaloak egiten  
115 gaztetxo ibili  
ziren; Txepetx  
taldeak egin zuen  
txorimalo onena*

*Apotzaga  
baserriaren,  
Gregorio Graciaren  
eta Txaro Uriberen  
postuak sarituta*



Eskoriatzako emakumeak gelditu barik ibili ziren taloak egiten zapatu eguerdian.



Ikasleek marmeladak eta bonboiak egin zituzten, besteak beste, Ferixan saltzeko.



Errementariaren lanak ikusmin handia sortu zuen herritarren artean.



Jumping-ak arrakasta handia izan zuen gaztetxoaren artean.



Bestetan baino animali gutxiago egon arren, ikusmin handia sortu zuten.



Iñaki Perurenak eta semeak ikuskizun polita eskaini zuten Eskoriatzan.



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtrokí.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetzak.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

**OHARRAK**

**KOKEIN-EN KONTZERTUA**  
Axtrokik antolatuta, gaur, egubakoitza, Kokein taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean, 22:30ean.

**LUIS EZEIZAREN JAIA**  
Bihar, zapatua, Luis Ezeizak ikasurte amaierako jaiak egingo du: 10:30ean hasiko dute festa; 11:00etan, ikasleek prestatutako ikuskizunak eskainiko dituzte; gero, bazkaria egingo dute eta hainbat ekintza izango dituzte iluntzea bitartean.

**KIROLA**

**Txikirri-Txikirri IV. mendi ibilaldia egingo dute domekan Eskoriatzan**

AINTZANE GARDOKI

Etzi, domeka, Txikirri-txikirri IV. Mendi Ibilaldia egingo dute Eskoriatzan. Goizeko zazpitan abiatuko dira mendizaleak, eta 40 kilometroko ibilaldia egin beharko dute. Eskoriatzan irten eta Mendiola, Kurtzebarri, Degurixa, Mugarriluze, Bentafria, Jarindo, Kurtzebarri eta Apotzagatik barrena Eskoriatzara itzuliko dira berriro. Antolatzaileek esan digutenez, lehenengo mendizaleak 14:00ak inguruan espero dituzte herrian bueltan.

Bittor Arrieta hil zenean, lagunek omenalditxo bat egitea pentsatu zuten; hala hasi ziren Txikirri-Txikirri ibilaldia egiten. Bi urtean behin egiten den ibilaldian gero eta jende gehiagok hartzen du parte: 1997an 185 lagunek hartu zuten parte; 1999an, 208 lagunek;

*Arrieta hil zenean, lagunek omenalditxo bat egin gura zioten: Txikirri-Txikirri egiten hasi ziren*

2001ean, 226k; eta domekan kopuru horrek gora egingo duela uste dute antolatzaileek: "Dena dela, emakumeak animatu gura ditugu bereziki; izan ere, parte-hartzaile kopuruak gora egin duen arren, emakumeak gero eta gutxiago gara", esan digu Garbiñe Uribe.

Hogei lagun ibiliko dira domekan antolatze lanetan, mendizaleek 40 kilometroko ibilaldian ezere faltarik izan ez dezaten.



Bi urtean behin egiten den ibilaldian gero eta jende gehiagok hartzen du parte.

**LABUR**

**Bihar, zapatua, zabalduko dituzte kanpoko igerilekua eta solariuma**

Aste barruan kiroldegiko beheko solairuan egiten ibili diren garbiketa lanak amaituta, bihar, zapatua, astebetetz itxita egon diren zerbitzuak zabalduko dituzte. Horrez gainera, eta udako denboraldiari helduz, kanpoko igerilekua eta eguzkia hartzeko solariuma ere zabalduko dituzte kiroldegiko arduradunek. Kanpoko igerilekua asteleheneetik zapatara bitartean 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta domeketan, berriz, 10:30etik 14:30era.

**Abian da San Pedro jaietarako Esaldi Lehiaketa, jaiak aireratzeko helburuarekin**

Eskoriatzarrok *ligoteau larri, euskerie sarri eta juergie* ikaragarri esaldia izan zen iazko Esaldi Lehiaketako esaldi onena; 50 lagunek hartu zuten parte lehiaketan, eta guztira 18 taldek. Aurten ere San Pedro jaietako esaldia asmatzeko hiru eta bost laguneko taldeetan 13 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek har dezake parte. Udaletxeko eta kultura etxeko eskapeetan jarriko dituzten postontzietan utzi beharko dira esaldiak ekainaren 16a (astelehena) baino lehen.

**EDURNE**

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

Aranburuzabala 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

Elektroterapia.

**Ze barri?**

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurerara!

**943 79 86 21**

**LENIZ, C.B. KONPONKETAK**

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

**aroztegia leniz**

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

Aingeruguardako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

**ALZA**

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540



# GUREL elkarteko 26 ume eta gurasok Zarautzen pasatu zuten aste bukaera

AINTZANE GARDOKI

Hamabi aita-ama eta 2 eta 14 urte arteko hamalau gaztetxok Zarautzeko Igerain aterpetxean pasatu zuten ekaineko lehen aste bukaera. Hondartzetan galipotak egindako kutsadura dela-eta umeek hain gustuko duten hondartzaz disfrutatze-ko aukerarik ez izan arren, gustura ibili zirela esan ziguten. Zapatuan Zarautzetik Getariara joan ziren oinez, eta *Egunkaria*-ren aldeko festan hartu zuten parte eta eliza bisitatu zuten, besteak beste. Arratsaldea Zarautzen eman zuten, eta domekan Urdaneta auzoan egon ziren.

ARGAZKIAK: E.Z.J.A.G.

*Kutsadura dela-eta umeek ez zuten hondartzaz disfrutatze-ko aukerarik izan*

*Domeka goizean Zarautzeko Urdaneta auzoan egon ziren guraso eta ume gatzagarrrak*



Getariako kaleetan barrena ibili ziren gazte eta nagusiak zapatu goizean.



Oinez joan ziren Zarautzeko aterpetxetik Getariara gatzagarrrak.



Getarian, *Egunkaria*-ren aldeko festan, txakolin freskoa gogoz edan zuten herritarrek.




Galipota dela-eta umeek ez zuten hondartzara joaterik izan.



Orduak eman zituzten gazteenek patinete gainean Zarautzen.



Umeek, nekatuta ibili arren, primerako aste bukaera pasatu zuten.



**FAGOR**

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.  
Gastañadui auzoa 42  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 51 20



# MITARTE GARAI

baserri-turismo etxea



Sei gela bikoitz ditugu, telebista eta guzti,  
eta hiruk bainugela ere badute



Lasai-lasai egoteko taberna

*Mitartegarai*



Areantza auzoa  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 17 51  
mitartegarai@euskalnet.net

**Batzarretarako gela ere badaukagu!**

## Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak horman sartuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



  
**AZKARATE**  
AROTZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
610 884 020



**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA





Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**

**ESKORIATZA** **Bazkariak eta afariak**  
ERRETEGIA  
Tfno 714345  
**MENDIOLA**  
Mendiola auzoa  
ESKORATZA  
943 71 43 45  
Astelehenetan itxita

**IOSU**  
taberna harategia  
Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak  
Mitarte 1  
Tel.. 943 77 03 08



**LAGUNAK**  
DASTALEKU  
Tel. 943714063  
*Gustora egoteko!*  
Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA



**Dorleta**  
taberna  
*Bezeroen zerbitzura*  
Loramendi, 8  
ARETXABAleta  
Tel.943 79 94 15

**URBALTZ**  
TABERNA  
Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABAleta



*Matikua jatetxea*  
Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68



**HIRUSTA JATETXEA**  
Zatoz gure sukaldea ezagutzera  
Ilargi plaza 4. Tel. ;; 943 79 06 57



**GOYARAN ERRETEGIA**  
Eguneko menua  
Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57



**Taberna Berri**  
Durana 26, ARETXABAleta. 943 79 20 67



**BAR GUREA**  
JATETXEA  
EGVNEKO MENYAK  
OTRTEKOKK ETA  
PLATER KONBINATYAK  
Durana 32 • Tel. 943 792064  
ARETXABAleta



*Mitartegarai*  
Areantza auzoa, Aretxabaleta  
943 79 17 51



**EZKUTU**  
TABERNA  
Zatoz gure musikaz gozatzera  
Mitarte 9 ARETXABAleta Tel: 943 79 92 01



**ORLY**  
Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABAleta

**IZOTZ**  
Taberna  
Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABAleta

**Aretz**  
taberna  
ORDUTEGIA:  
Astelehenetik ostiralera  
9:00etatik zabalik  
Astebukaeretan  
11:00etatik aurrera  
Markole, 5 behea  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABAleta

